

# bidegileak



**Patxi Ondarra (1925-2005)**

Egilea:

**ROSA MIREN PAGOLA**

# Pertsona zintzoa eta intelektual argia

ita Patxi Ondarra intelektual bat zen, inteligentziazko bizitzan murgildua. Apaiza izanik ere, ez zen plaza-gizona bere aiurriz. Berak ere ez zuen hori onartzeko erreparo handirik. Horrek ez du esan nahi, ordea, sufriarazi ez zionik bere bizitzan. Apaiz eta erlijioso bati denetariko eginkizunak tokatzen zaizkio, eta ez gutxi jendearen aurrean egitekoak. Klaseak eman, sermoiak egin, eliz pastoreko harremanak, lan horietan ari izan zen, eta apaiz eta erlijiosoei dagozkien hainbeste horrelako lan suertatuko zitzaizkion bere urteetan. Eta aita Ondarrak ere ongi bete zituen bete beharreko guztiak, bere burua



Patxi Ondarra Erdocia (1925-2005)

gogor hartuz izanik ere. Baina jakin izan zuen, bestalde, zituen dohain berezienak landuz, bere buruari ahalik eta probetxurik handiena ateratzen eta, bide batez, gizarteari eskaini ziezaiokeen zerbitzurik ederrena ematen. Aita Ondarrak inteligentzia lana maiteago zuen, horri, bere borondate sendo eta zintzoari eta bere euskalduntasunari esker, euskarari eta Euskal Herriari eskaini zizkion bere emaitza bikainenak.



Bakaiku

## Bakaikuko semea

Aita Ondarra Nafarroako Bakaikuko semea zen. Bakaiku Burunda bailarako herritxo bat da, Etxarri-Aranatz eta Iturmendi herrien artean kokatua. Bailaratik zertxobait jaso dago, haren ikuspeirik atsegina eskaintzeko adina. Askok, agian, ezagutu ere ez dute egingo Bakaiku, baina haren albotik pasatu ez den euskaldun aunitzik ez da izango. Orain bada Gipuzkoatik Iruñera bide aiseago eta atsegina gorik,

baina garai batean Altsasu inguratuz, Burunda eta Sakana osoa gurutzatzen duen errepidez egiten zen bide hori gehienbat. Eta zer esanik ere ez Gasteiztik, Iruñerako errepide nagusia oraino ere hori bera baita, eta Bakaiku bien arteko bidearen ia erdian dago, ordu erdi eskasera autoz Iruñetik, eta zerbait gehixea-gora Gasteiztik. Bietatik hurbil, beraz, baina, legezkoa denez, herriak beti Iruñeaz izan ditu harremanak beharrez eta joeraz, ez baita alferrik Nafarroako hiriburua.

Urbasa mendizerra du hegoaldera Sakanak; eta Aralarkoa haren aurrez aurre, Ataungo herria mugakide duelarik Bakaikuk Gipuzkoa aldera. Ez dago zer esanik ere benetan ikusgarria dela Bakaikuren inguru guztia: behean alor eta belardi eta zenbait herrixka pollit, mendi tentagarriak aitzin-gibeletan haritz eta pagoz jantziak, eta haien gainetan lautada miresgarri eta ibiltzeko erosoan eta plazergarrienak edozein garaitan, miru bikoteak goian, lurraren zaintzaile bailiran, batera eta bestera

hega lasaian, eta behean denetariko azienda sakabanatuak. Eta han-hemenka historia-aurreko trikuharri eta beste aztarna ugari. Ez zion, ez, gure Patxik ukorik egingen bere sorlekuaren ederrari, eta ez da harritzekoa bizitza osoan agertu zituen mendirako grina eta euskaldunon aspaldiko lekukoen zaletasuna.

Bakaikuk hirurehundik gora biztanle ditu gaur egun. Garai batean gehiago ere izan zituen inolaz ere, baina denborak aldatuz doazen neurrian, gazteek hirigune handiagoetara jo



Patxiren sortetxea

dute etorkizuneko urteetan bizibidea eta bizitza bera errazago garatu ahal izateko asmoz. Halere, herriko umeek ez dute nolanahi herria ez ahazten, ez uzten, batez ere asteburu eta aisialditarako, eta horregatik herri-kaskoak ez du aldaketa handirik jasan. Baditu etxe ederrak eta denak ongi zainduak daude, herria bera bezala. San Joan Bataiatzailearen eliza da herriko parrokia, XVI. mendekoa, handia eta ederra; erretaula nagusia, XVIII. mendekoa, hagitz deigarria da, barroko berantiarreko apainketa gehiegizkoek, baina rokokoaren argitasun eta dotoreziaz leundua. Garai bereko Ama Birjinaren irudi polita, irudi barrokoak baino edertasun nareagokoa, du sagrario gainean.

Baso-ustiapena, nekazaritza eta abeltzaintza izan dira herriarentzat bizibide nagusi luza-roan, eta orain ere aisa ikusten dira beheko belardietan nola goietako lautada eta basoetan behi eta zaldi ederrak bazkatzen, eta herri horietako gazteei hain entzute handia ekarri dieten ardiak. Industria ere garatu da inguruetan, eta jendeak, laborantzarekin batera, eskurago gelditzen zaien fabriketan ere lan egiten du. Bakaikuk XIX. mendean aduana eta tabako-administrazioa izan zuen; eta Zumalakarregik agintzen zituen karlisten konpainien kuartel nagusia ere Bakaikun kokatu zen aldi batean.



Patxi Gurasoak 1946an



## Haurtzaroa

Esan bezala, Bakaikun jaio zen, 1925eko maiatzaren 19an, eta izena Francisco ezarri zioten, Francisco Ondarra Erdocia. Gurasoak ere, Feliciano eta Maria, biak Bakaikukoak ziren. Frantzisko, gero Patxi, berak ere Patxi gogokoago baitzuen, eta guk ere horrela erabiliko dugu hemen. Patxiren jaiotza poz handiz hartuko zuten gurasoek, lehena baitzen eta, agian, muttikoa zelako ere bai. Patxiren ondoren beste bost etorri ziren, lau mutil eta neska bat, denera sei anai-arreba izan zirelarik.

Patxiren sortetxea herrian bertan dago. Etxeak ez du izen berezirik. Etxe ederra da, harri landuz eraikia, eta oraindik ere familiekoren batek erabiltzen bide du. Ez zen baserria, baina bazituen laborantzako zenbait lur, eta Patxiren aitak, haiek landuz gain, kanpoan ere egiten zuen lan, eta hala eman zituen Olatzagutiako zementu-fabrikaren harrobian urte asko. Zoritxarrez, ez gazterik, baina zahartu aurretik hil zen gizona, auto-istripuz, eta Patxik, Ameriketara izaki ordurako, ezin izan zuen aita zendua ikusi, ez eta hileta-



San Joan Bataiatzailea elizan bataiatu zuten

-elizkizunean lagundu ere, eta une latz haietan amak eta anai-arrebek seme nagusia falta zuten, apaiza zena gainera, orduan ez baitzen gaurko erraztasunik harat-honat ibiltzeko.

Dena den, Patxiren haurtzarora itzuliz, herriko giro xume eta arruntean igaro zituen urte haiek. Herriak bazuen eskola, udaletxean bertan hain zuzen, eta hantxe hartu zituen lehenengo ikasketak Patxik. Eskolak bi ziren: neskena eta mutilena, eraikin berean biak, baina talde bakoitza bere aldean, haiek maisuarekin eta neskak maistrarekin. Gaztetxotatik, mutiko koskortuxea bazen ere, aitari baserri lanetan lagundu behar izaten zion, zaharrena baitzen. Baina unerik goxoenak amarekin pasatu zituen, eta azken urteetan ere bizi nabari zitzaion amarekiko zuen maitasuna eta miresmena.

Haurtzaroko urte garrantzitsu horietan, amarengandik ikasi zuen euskara eta hark erakutsi zion herria maitatzen; amak barneratu zion erlijio sentipena eta fede sendoa. Izan ere, Patxiri entzunda, haren eragina seme-alaba guztiengan izan zen handia. Ez zuen emakume ikasia izateko aukerarik izan, baina buru argikoa zen, eta gizon heldua zelarik ere aunitz lagundu zion Patxiri euskarari eta ahozko herri kulturari buruz informazio aberatsa biltzen. Azken aldian ere, berak neroni kontatzen zidanez azken aldiko bisitetan, amaren ahotik jasotako hainbat esate eta kontakizunen bilduma argitara emateko ilusioz paratzen ari zen.



Patxiren garaian, eskola udaletxeko egoitza berean zegoen







Patxiren guraso eta anai-arrebak

## Erlijiosotarako bokazioa: Kaputxino

Hamabi urterekin joan zen Patxi, 1937. urtean, Bakaikutik bi pausutara, bederatzi kilometrotara, dagoen Altsasuko Kaputxinoen seminario txikira. Aita Kaputxinoak hagitz ezagunak ziren Bakaikun, hango elizkizunetan laguntzera eta misioak ematera maiz joaten zirelako, eta gainera aspalditik zetorren Kaputxinoek herriarekin zuten



Patxi eta bere anaia. Honek ez zuen jarraitu

harremana. Ezin dugu ahanzi *Irugarrenko Prantziskotarra* aldizkaria, 1913tik 1963rarte hilero atera eta aunitz zabaldu zena Nafarroako herri euskaldunetako etxeetan. Bestalde, Aita Kaputxinoak urtero pasatzen ziren herritik erlijioso izateko bokazioa eduki zezaketen gaztetxoek bila, eta urtero izaten zen banakaren bat Kaputxino egiteko asmoz Altsasuko seminariora joaten zena. Ezagunak zituen, bada, Patxik Kaputxinoak eta ez zuen laguntza handiren beharrik izango erabaki hori hartzeko, amaren eragin xamur eta iraunkorra ere han izango baitzen, bestalde. Horrelaxe abiatu zen Patxi kaputxinoetara, eta urte batzuk geroxeago baita Patxiren beste bi anaia ere, hauek gero utzi egin zutelarik.

Urte latza zen hura, Espainiako azken gerrate gogorrean. Sakana aldean ere, beste edonon bezala, ez ziren arazoak falta, ez eta istilu eta hezurretaraino sartzen zen beldurrik ere. Altsasuko seminarioraino iristen ziren noizbehinka kanoien danbadak hango bakea hautsiz, baina, agian, haiek baino gehiago hautsiko zuten gerrak berez dakartzan hainbeste buruhauste, beharrian eta berri txarrek. Patxik karlisten inguruko giroa ezagutu omen zuen etxean eta horrek, Nafarroan, beste ikaraldi batzuetatik libratu zuen, noski, baina aita ez zen libratu frontera joan behar izatetik. Patxik zioenez, gerratearen ondoren ez omen zen familian urte gogor haietaz inoiz mintzatzen eta, edonola ere, Patxiri, zuen adinagatik eta seminarioko giroan bizitzen zelako

edo, ez zirudien ondoriorik gelditu zitzaionik, edo, behinik behin, ez zuen horrelakorik aditzera eman ohi.

Lehenbiziko bost urteko ikasketak Altsasun egin zituen, eta ohitura eta arau zen bezala, han egon behar izan zuen inoiz etxera itzuli gabe, ez oporraldietan ez beste inoiz, aparteko arrazoirik gertatzen ez bazen, noski. Ikasketak batxiler mailakoak izaten ziren gutxi gorabehera, bide batez, zer esanik ez, erlijioan eta gizatasunean formatuz eta izpiritua aberastuz. Gure mutil gaztea ere han hasi zen bizitzara ernatzen eta han bota zituen sus-traiak, formazioko urte luzeetan sendotuz joanen zirenak eta bizitza osoan indarra emango ziotenak. Aita Ondarrak, alde batetik, irmoki eutsiko zion beti bere bokazio eta espiritualtasunari; eta, bestetik, letretako jakintzetarako agertuko zuen zaletasun handia ere



Senitartekoak sortetxeko atarian 1960an



Bizarra 1977ko uztailaren 22an kendu omen zuen

gaztaroko urte haietan hasiko zitzaion sortzen. Horiekin batera, bere kirola, kiroltzat har badaiteke, mendian ibiltzea zen. Ez zen berez norgehiagokako kirolen zalea, baina mendira joatea biziki maite zuen, eta ez zion horri sekula utziko, bere zaharrean ere etxe aurreko mendira joan-etorriak maiz egiten zituelarik. Irteerak bakantzen hasi zenean eta, azken urte edo urte erdian, ia erabat uzten, susmo txarra hartu omen zioten horri komentuko bere anaiek.

Formazioko urteak hamahiru izan ziren, adin eta formazio mailen arabera egoitzaz aldatuz: Kaputxinoen komentutan beti, baina leku ezberdinetan. Altsasun, bost urte. Gero, Hondarribiko komentuan bi urte eman zituen filosofia ikasketetako lehenbiziko bi ikasturteak egiten. Zangozan urte bakarra, nobizidokoa hain zuzen. Ondoren, Lizarran, filoso-



Teologiako ikasketak bukatu zituenean. Patxi beheko lerroan zutik

fiako hirugarren ikasturtea eta teologiako lehena egin zituen 1945-1947 bitartean. Teologiak beste hiru ikasturteak Iruñean izan ziren, eta 1950ean amaitu zituen.

Urte horietan egin zituen erlijio boto nagusiak eta, horrekin batera, aurrerantzean Aita Frantzisko Bakaikoakoa izango zuen erlijioso izena, baina berak gogokoagoa zuen Aita Patxi Ondarra. Ordena sakratuak ere urte horietan hartu zituen eta 1949. urtean, teologiako lau garrenean, abenduan, Iruñeko Artzapezpikuak apaiz ordenatu ondoren, Eguberri bezperan eman zuen Lehenengo Meza bizitza erlijiosoa hasi zuen leku berean, hau da, Altsasuko Kaputxinoen elizan. Horrenbestez, ikasturtea amaituz, San Frantzisko Asiskoaren eta frantziskotarren espiritualitateaz ongi horniturik, hasi zuen bere apaiz egin ondorengo bizitza.

Formazioko urte hauetako begirada ez dago amaitzerik Patxiren bizitzan eragin handia izango zuen beste alderdi bat aipatu gabe, bere barne sakonenetik sortzen zitzaiona. Ikasketa arautu orokorrak egiten zituen bitartean, haiek uzten zizkieten aldi libreetan eta txolarteetan hebraiera eta grekoa ongi ikasi zituen Biblia hizkuntza horietan irakurri ahal izateko, eta alemana ere bai hura behar bezala aztertzeke. Azken helburua, ordea, Biblia hizkuntza orijinaletatik euskarara itzultzea zuen, dirudienez. Izan ere, Aita Probinzialari idatziz adierazi zionez, bere asmoa Biblia jatorrizko hizkuntzetatik euskarara itzultzea zen, eta horretarako euskara ere, ama-hizkuntza izatez gain, asko landu zuela esaten zion. Eta honako hitz hauekin bukatzen zituen bere arrazoia: «Beraz, nire egonlekua hementxe dago».

## Txileko urteak

Gauzak ez ziren horrela gertatu, ordea. Aita Probintzialak Aita Ondarra Txilera bidaltzeko erabakiari eutsi egin zion hark eskainitako arrazoiak aintzatetsi gabe. Ikasketak amaiturik, Lizarran zeramatzan hilabete batzuk pasto-raltzako lanetan saiatzen, baina laster iritsi zitzaion Txilerako agindua, eta 1950eko urtearen amaieran harat abiatu behar izan zuen, bere barneko sentipen bizienak alde batera utziz edo, gutxienez, aldi luze baterako ahantziz. Ez zuen berak hori uste ez eta horrek bere izateari ongi erantzuten zionik ere, baina obeditzeko botoari zegozkion zintzotasun osoz eta apaltasunez men egin zion esan zitzaionari besterik gabe.



Txilen José Ochoa de Aldarekin

Paineko Kaputxinoen seminariora eraman zuten, hango ikasleei hizkuntzetako klaseak emateko. Horrez gain, ikasketa-buru zazpi urtez izan zen, bibliotekari ere beste zazpiz, zuzendari-orde, diziplina-arduradun eta ikas-tetxe batean suertatu ohi diren beharrizanei erantzuteko beti prest. Baina egiteko horiek ez zioten benetan bere senari erantzuten. Aita Patxi ezagutuz gero, izatez apal eta uzkur xamarra, ez da erraz diziplina-begirale bezala mutil kozkorren atzetik iruditzen. Pasto-raltzako lanetan ere aritu zen, denetarik eginez, horretarako ere jaidura handiegirik ez zuen arren. Intelektuala zen batez ere, intelektual hutsegia agian, munduan bizitu behar baita nornahi, baina norberaren izaeraren aurka nekez irabaz daiteke erabat. Eta han ere, hainbeste egitekoren artean, ingelesa ikasteko astia atera eta hizkuntza hori jariotasunez hitz egitea lortu zuen eta, bide batez, hizkuntza horren ezagutzaren goiko mailako titulua ere erdietsi zuen.



Txilen lortu zuen ingeleseko agiria



## Oporretara etorri eta betirako gelditu

amahiru urte igaro ondoren oporrak izan zituen Euskal Herrira itzuli eta etxekoak ikusteko. Alde batetik, bazela garaia pentsa daiteke, eta, bestetik, familian ere bi berri handi, bat ona eta bestea txarra, gertatuak ziren bera herritik at zebilen urte horietan: Patxik artean ez zuen anaia gazteena ezagutzen, Ameriketara joan eta gero jaio baitzen; baina tarte berean aita hil zitzaion Patxiri ustekabea. Beraz, bisitan etortzeko baimena emateko ordua zela pentsatuko zuten nagusiek eta berak ere hori uste izango zuen. 1964ko urtarrilaren 5ean iritsi zen. Etorri, opo-



Gernikan 1967an

rreretara etorri zen, baina aldi baterako uste zen egonaldia behin betikoa bihurtu zen. Erlijioa anaiak diotenez, berak hitz egin omen zien Nagusiei. Ez da harritzekoa: behin batean baztertuak utzi behar izan zituen gogo minak bizi-bizirik zirautea bere bihotzean esango zien, eta hura aukera ona izan zitekeela eta ez, artean, tenore txarra amets haiek ahal zitekeen neurrian berreskuratzeko. Dena den eta solasak solas, Euskal Herrian gelditu zela da kontua.



Lehenengo zortzi hilabeteak han-hemenka pasa zituen lasaitasunean eta ikasturte berriaren hasieran urtebeterako Tuterara zuzendu zuten, eskolak eman bidenabar egoera berrian laketu zedin. Bazekien, jakin, ez zuela Bibliako lan sakon haietara itzultzerik. Aspaldiko prestakuntza hura galdua zuen, eta hizkuntzak ere bai, noski: «Euskara, nire ama-hizkuntza da hobekien gorde dena, baina hau ere lehen baino gutxiago jakinez» zioen. Baina Patxi Ondarrak burua lehengo lepotik: Biblia ez bazen, izango zuen zer egin euskararen inguruan. Horretarako idazmakina bat behar zuen aurrena eta, baimena lortu ondoren, eskuratu zuen bat, bere lanetan luzaro laguntzaile on izango zuena. Hurrengo ikasturtean Zangozara eraman zuten, iparralderago alegia, eskolak ematera, noski. Eta ondorengoan, Donostiara. Hemen ere eskolak eman zituen, baina igandetan sermoiak ere egin behar izaten zituen, eta hori ez zitzaion hain laket.

Urtebeteren buruan Lekarozen ezarri zioten egoitza, Aita Kaputxinoek han zuten *Aholku*



Lekarozen eskola ematen

*Onaren Ama Birjinaren* ikastetxean. Leku hura paradisua zen Aita Ondarrarentzat: Nafarroan, herri euskaldunik bada eskualde euskaldunenean, eta natura maite bada, parajerik ederren eta ikusgarrienak, Baztan bailararen bihotzean, Saioa, Gorramendi, Iparla eta hainbat mendi ederrez inguratua, denak pagoz, haritzez, gaztainondo hornituak, eta erabat berde urte osoan. Aisialditarako mendi atseginagorik ibiltzeko ez da erraz aurkituko nolanahi. Eta bada beste alderdi bat Aita Ondarrak benetan estimatzen zuena, euskaldunen historia-aurreko aztarna ugari aurkitzen baita han-hemenka Baztango lurretan. Hantxe igaro zituen Patxi Ondarrak urterik ederrenak eta oparoenak bai beretzat, bai guretzat. Hogeita bost urte, 1968tik 1993ra, emaitza bikainez mukur.

Irakaskuntzarekin jarraitu zuen, beti bezala batxilergo mutilei hizkuntzak irakasten, baina han hizkuntza berri bat ere eman ahal izan zuen: euskara. Berak sortarazi eta eman zuen euskara lehenengo aldiz ikastetxe hartan, ikasketa-programan ofizialtasunez sartzerik lortu ez bazuen ere. Lekarozen beste edozein kargatik libreago utzi zuten eta horrek ikerketa lanetan lasaitasun handiagoz jarduteko aukera ezin hobea eskaini zion. Eta euskarazko lanetan hasteko ere kolegioan bertan ere giro hagitz ona aurkitu zuen, besteak beste, hantxe baitzeuden Aita Polikarpo Iraizozkoa eta Aita Jorge Riezukoa. Benetan, Lekaroz eta inguru guzti hura tokirik aproposena zen eta, gertatu ere, horrela gertatuko zitzaion garai bateko zaletasun maiteenak berpiztu eta bizitzen hasteko.



## Hizkuntzak eta Unibertsitatea

Beti ikusi dugu Aita Ondarra hizkuntzen irakaskuntzari lotua eta, hain zuzen ere, gaztetarik erakutsi zuen hizkuntzak ikasteko zaletasuna. Altsasun ikasketak hasi zitueneko ohartu omen zen gramatika eta hizkuntzak ikasteko erraztasun berezia zuela eta kalifikaziorik onenak ere gai horietan ateratzen zituen. Euskara bera ere hantxe hasi zen eskolan ikasten. Euskaraz, jakin, ongi zekien etxetik, baina han familian eta herrian erabiltzen zuen hizketa sakonago ezagutzea zen, eta tentagarri gertatu bide zitzaion. Ikasketa hori nahi zuten ikasleentzat eskaintzen zenez, Patxik ez zuen aukera galtzen utzi.

Hurrengo urteetan, euskara sekula baztertu gabe, latina eta frantsesa ere ikasi behar izan zituen. Eta, lehen esan bezala, Bibliarekiko zituen asmoetarako ezinbesteko zituen hizkuntzak ere aski ongi menderatzera iritsi zen, hauek bere kasa, borondate handia ipiniz eta ordu asko sartuz. Ameriketara bidali aurretik honela esaten zion Aita Probintzialari:

«Iruñean hebraiera aunitz ikasi nuen, ia hiztegitik erabili gabe (Bibliako) liburu historikoak irakurtzeko adina». Eta grekoaz ere gauza bera zioen. Alemana oraino aiseago ulertzen zuen eta ingelesa, berriz, Ameriketan ibili zen urteetan ikasi zuen. Gero ez zitzaizkion gauzak berak nahi bezala joan eta Bibliaren inguruan zituen asmoak aurrera eramateko aukerarik ez zuen izan, baina hizkuntzak ikasten sartu zituen orduak ez ziren erabat galdu, hizkuntza bizien irakasle izanen baitzen hainbeste urtetan eta, behar zenean, baita latineko eta greko klasikokoa ere.

Azkenik, filologiako lizentzia titulua ere atera egin zuen gizonak Lekarozen ziharduenean irakasle. Ez zen gaztea, baina lortu egin zuen unibertsitateko karrera hasi eta burutzea Lekaroztik bertatik Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatean. Kemen handia erakutsi zuen, noski, Aita Ondarrak, oso gogorra baita irakaskuntzan eguna eman eta batera unibertsitateko ikasketak aurrera eramatea. 1980an, 55 urte zituela, jaso zuen titulua.



Erdaraz ala euskaraz idazten zueneko sinadurak



Euskaltzaindiko sarrera ekitaldian

## Euskararen munduan eta euskaltzain

Ongi zekien Aita Ondarrak zertan zebilen filologiako ikasketak hasi zituenean. Aspaldiko amets batzuk bizitzako ibilbidean ahantziak gelditu ziren guztiz, ez, ordea, euskararen inguruan zituenak, ordurako Biblia itzultzerik ez bazuen ere. Hispaniar filologian lizentziatu zen, ikasketa horiek hasi zituenean ez baitzen

euskal filologiarik. Nolanahi ere, filologiaren ezagutza ezin hobekiago etorriko zitzaion testu zaharren inguruan zerabiltzan asmoak eta saioak goi-maila batez burutu ahal izateko.

Eta zein lan bikaina egin zuen alor horretan hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi eta bizitzako azken urteraino! Sermoiak, dotrinak, gutunak, bertsoak, zeinahi eratako idazkiak eta horien inguruko azterketa lanak argitaratu zituen *Fontes Linguae Vasconum*, *Euskera*, *Anua-*

rio del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Egan eta beste aldizkarietan. Nafarroako euskalkietako testuak izan ziren gehiago, baina besteetakoak ere badira aski. Lehenengo lana 1965ean argitaratu zuen Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-en boletinean: «Voces vascas de Bacaicoa». Ez zegoen batere konforme lan honekin, gaztarokoa baitzen, Ameriketara joan aurretik hasitakoa, baina aipagarria da, hain zuzen ere, agertzen duelako zein arin hasi zen euskal lanak prestatzen lehenengo meza eman ondoren.

Ez dago, dena den, argitaratu zituen lan guztiak aipatu beharrik. Ekarri dezakegu, esaterako,

XVIII mendeko Utergako dotrinaren argitalpena bere azterketarekin: «Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga»; ala «Textos en vascuence navarro de Baztan, Nuin y Urdazubi» eta «Hemezortzigarren eta hemezortzigarren mendeetako euskal gutun ezezagunak». Arrazoizkoa den bezala, Aita Kaputxinoen inguruko lanak egin zituen, haietaz idatziz eta haien testu argitaragabeak argitaratuz: esaterako, Adoingo Aita Esteban, Oierregiko Buenaventura Aita, Fray Juan Ajuria, Igorreko Julen Aitarenak, baina batez ere Aita Polikarpo Iraizozkoarenak. Lagun izan zuen Lekarozen haren zahartzaroan eta Aita Patxik estima handian zuen Aita Polikarpo. Haren *Hitz*



Patxiren bi argitalpen



*neurtuzko lanak eta Hitz lauzko lanak (1927-1949)* Nafarroako Gobernuak argitaratu zizkion. Lehena Gregorio Andueza eta Francisco Javier Cabodevillarekin lankidetzan pres-tatua. Aipagarria da baita ere *Fray Miguel San Frantziskoren (Zuzaeta): Fr. Jose Jesus-Mariarena (Arakistain): XVIII-XIX mendeetako karmeldarrak: Idazlanak* Antonio Unzueta-*ren laguntzaz* argitaratu zuen liburua. *Aita Iraizozen lan guztiak*

hiru aletan Nafarroako Gobernuak berak argitaratu zituen.

Aipatu beharrak dira, halaber, egin zituen Joakin Lizarraga Elkanoko bikarioaren zenbait lanen edizioak: *Aita Ondarrak* berak bakarka *Ongi iltzen laguntzeco itzgiai*; *Urteco igande guzietarako prediku laburrak*; eta Juan Apezetxea Perurena Iruñeko apaiz jaunarekin lan-



Lizarran Nafarroa Oinezen



kidetzan, *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak* liburu ederra, hau ere Nafarroako Gobernuak argitaratua.

Azkenik, testu klasikoak editatuz gain, dialektologo bezala ere aipatu behar da Aita Ondarra. Argitalpenak testuetako hizkeraren azterketa-lan zehatzez aberasten zituen beti: «Goñibarko XVIII. mendeko sermoietan»; «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi» eta abar. Denera, etnografiari buruzkoak ere kontutan hartuz, artikuluak, liburuak aparte, hirurogeita hamabi argitaratu zituen.



Argitalpenetako bat

Horrenbestez, ez dut uste oker geundekeenik esango bagenu Aita Patxi Ondarrak lortu egin zuela aspalditik zeraman arantza ateratzea eta barneko egonezina lasaitzea. Ez zuen bizitza akitu gaztaroko amets eder haiek neurri on batean bete gabe: lan on eta ugaria egin zuen euskararen ezagutza hobeagorako, eta euskalki batzuk aztertzeke berak argitaratutako testuetara jo behar da eta egin zituen azterketak kontutan hartu behar dira.

Bestalde, Aita Ondarraren lana euskal esparruan Aita Kaputxinoek euskararen alde egin izan duten lan handiaren jarraipena bezala aipa daiteke. Aita Ondarraren pertsona hori onartu ere egin zitzaizela pentsatzea ez legoke guztiz desegoki. Iraizozko Polikarpo euskaltzaina hil zenean Euskaltzaindiak hark utzi zuen aulkia betetzeko Aita Ondarra hautatu zuen 1980an. Artean Aita Damaso Intzakoa bizi zen arren, ehun urte betetzeko ez zitzaion askorik falta, eta Kaputxinoen presentziari jarraipen bizia Euskaltzaindian Aita Patxi Ondarrarekin eman zitzaion. Sarrera-ekintza kaputxinotarako ikasketak hasi zituen toki berean izan zen, Altsasuko Kaputxinoen ikastetxean, eta Aita Villasantek, Euskaltzaindiko buru zenak, bere hitzetan Akademiako Aita Kaputxinoen lana jaso zuen. Aita Ondarrak oso atsegin zuen Euskaltzaindia eta, garraio egokitasun handirik ez zuen arren, moldatzen zen bileretara hurbiltzeko. Sail desberdinetako kide izan zen, baina batez ere dialektologiakoan aritu zen, sail honen buru ere izan zelarik.



*Lamizilo trikuharria (Beartzunen). Patxik egindako argazkia*



Aita Jose Mari Oroquieta Ayerrarekin

## Arkeologo eta etnografo

Hauxe da Patxiren alderdi bat beti deigarria gertatu izan zaiena euskaltzain izatetik ezagutzen zutenei, baina haren bizitzan eragin handia izan zuena. Esana dago ez zela norgehiagokako kirolen zalea, baina biziki maite zuela mendian ibiltzea. Euskaldunok bizi garen lur honetara atxikia zen egiaz, eta hori ez zuen galdu herritik at ibili behar izan zuen urteetan. Bestalde, arkeologia eta etnografia ikasketak ere eginak zituen apaiz-ikasketa garaian, eta bazuen ordutik euskaldunen

historiaurreko aztarnen inguruko grina eta jakin-nahia.

Beraz, izatez inteligentzia lanetarako joera gaindiezina zuenez, mendizaletasuna baliatu zuen iraganeko aztarnak arakatu eta aztertzeke ez ezik, berak bere kabuz aurkitzeko ere, eta zenbait aurkitu eta ikertu zituen. Monumentu edo aztarna horiei buruz hainbat lan argitaratu zituen, batez ere *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, *Trabajos de Arqueología de Navarra*, *Príncipe de Viana* eta *Kobie* aldizkari espezializatuetan: «Nuevos monumentos megalíticos en Baztán y zonas colindantes», urte



Sortetxe aurrean anai-arreba guztiak





Allotz urtegiko uharka gainean

desberdinetako emanalditan; «Los cromlechs y túmulos de la estación megalítica de Atxuri»; «Bertitzarana eta Malerrekako trikuharriak»; «Lantz eta Ultzamako mugetan oroitarri berriki aurkituak»; «Edestiaurreko oroitarri berriak Nafarroan» eta abar luzea. Horiekin badute zerikusirik etnografiako gaiak, eta hauek ere, zer esanik ez, interesatzen zitzaizkion Aita Ondarrari. Aipa ditzakegu, esaterako, «La parábola del hombre y del dragón» eta «Apeo de Baztán» *Cuadernos de Etnología y Etnografía* aldizkarian argitaratuak.

Eta guzti hori, berez atsegina, hagitx mesedegarri gertatzen zitzaion nahiz soina egurastu eta barnea lasaitzeko, nahiz gai horien zaleekin ezaupideak egin eta harremanetan jartzeko. Aita Ondarrak ez zion sekula utziko mendira joateari. Azken urteetan ere, osasunez ongiezik eta bistaz aski urriturik aurkitu arren, San Kristobal menditik —Errotazarreko komen-tua mendi horretatik hurbil baitago— egunero ez bazen ere, astero biratxoren bat egin gabe ez zen geldituko.

## Erlijioso

Eraman zuen bizitza ikusiz gero, ez dirudi besterik gehitu beharrik dagoenik ohartzeko zein gizon zintzoa, apala eta lanera lotua izan zen beti. Ikusi dugu hagitx zorrotza zela gazte-gaztetarik denbora aprobetxatzen, buruan zerabiltzan lan zientifikoak egiteko bere jakitatearen etengabe aberastuz. Izan ere, buru-lanetarakoa zen Aita Ondarra. Horrek bideratu zuen irakaskuntza lanetara, baina utzi gabe, ahal izan zuen neurrian, ikerketa lanak

eta argitalpenak. Berriketetan galtzen ez zuen denborak astia ematen zion idatziz azaltzeko bere buru eta adimenak ematen zituen fruitu umatuak. Erlijioso doi-doia izan zela diote bere anaiek, apala eta zehatza fraide bizitzan, eta kanpotik ezagutzen genuenei ere irudi berbera ematen zigun. Begikoa eta ezitia tratatu eta solaserako, eta lehen agurretik ageri zuen gizakume tolesgabe baten aurrean geundela. Ez zen plazagizona izanen, baina jendearekin harreman eta solasaldi lasaia aunitz estimatzen zuen.



*Errotazarreko komentuan bizi izan zen azken urteetan*



## Azken urteak Iruñean

Hirurogeita zortzi urterekin utzi zuen Lekaroz eta, 1993an, Iruñeko Extramuros deitzen den *Errotazahar* komentura aldatu zen. Etxe aproposa lan intelektualean eta ikerketan bake giro lasaian aritzeko. Eta aurrerantzean euskarara eta euskaraz idatzitako testuen argitalpenak prestatzera eman zen erabat. Izan ere, mendiko ibilera luze haiek amaitu ziren eta aspaldiko aztarnen inguruko lanak ere utziak zeuden ordurako.

Komentua konpondu beharra izan zenean, Altsasun egin zuen 1998tik 2000ra, eta horren ondoren berriro Extramuroseko *Errotazahar*era.

Osasuna ez zuen txarra izan. Ajeak ez zitzaizkion falta azken urteetan, bazuen horretarako adina ere eta, baina, gaitz batzuk gorabehera, zutik ibili zen azkenerarte, inoiz edo behin eritegian egon izan bazen ere. Eta lanean jarraitzen zuen. Argitalpen garrantzitsuak egin zituen urte horietan berak



Aita Tarsicio de Azcona historiagilearekin. Eskerrak berari lan hau egiteko eskaini digun laguntzagatik

bakarrrik ala lankidetzan, eta azkeneko urtean ere bere amaren ahotik jasotako ipuin, esaera eta abarren lana ilusio handiz burutua edo burutzear zuen. Agian hil ondorengo bere emaitza maitea izanen da.

Animua eta egoera bera ere jaitsiak omen zituen azken hilabeteetan, baina guztiz ezindua

ez zen egon azken egunetara arte. Jainkoak 2005eko uztailaren 31n, laurogei urte zituelarik, eraman zuen bere atsedenera. Hileta ederrak izan zituen *Errotazahar* komentuko elizan, bere anai Kaputxinoez inguratuta, familiakoak, Nafarroako Gobernuko Kulturako ordezkariak, euskaltzainak eta lagun ugari bildu zelarik elizkizunean.



*Errotazaharreko liburutegian, 2005eko urtarilaren 7an*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Kaputxino-Artxiboari, Errotazahar, Iruñea
- Aita Tarsicio de Azconari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Rosa Miren Pagola

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2459-0 (Lan osoarena)  
978-84-457-2599-3

L.G.: BI - 2586-07

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística